

txi kitto!



**Aratosteak
ate joka**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri, Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Maialen Belaustegi.

Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena




Gipuzkoako Foru Aldundia

Txikis Teak



- ✓ - Nola esaten da Hulk euskaraz?
- Ez dakit.
- Nola?
- DONOSTIA: Don-ostia

- ✓ - Zergatik elefanteei ez zaizkie ordenagailuak gustatzen?
- Arratoiak dituztelako.



- ✓ Txakurrek zergatik eramaten dituzte hezurak ahoan? Poltsikorik ez dutelako.

- ✓ - Ama, ama! Ni nola jaio nintzen?
- Zikoinak ekarri zintuen.
- Eta zu, ama, nola jaio zinen?
- Amak Parisen erosi ninduen.
- Eta amona? Nola jaio zen?
- Aza barruan aurkitu zuten.
- Jesus! Sekula ez al da izan jaiotza normalik familia honetan??





✓ - Mutil bat okulistarengana doa.

Okulistak esaten dio:

- Zer nahi duzu, betaurrekoak edo eguzkitarako betaurrekoak?

- Ez, eguzkitarako ez, niretako nahi ditut!



✓ Ume batek esaten dio bere aitari:

- Aita, aita! Baina zergatik jartzen didazu guakamolea buruan?

- Isildu zaitez, Natxo!



✓ - Ama, mutil-lagunarekin aterako naiz pelikula bat ikustera.



- Zer ikusiko duzue, "Titanic 2"?

- Ama, pelikula hori ez da atera.

- Ezta zu ere, ja, ja, ja!!!

Denborapasak

Labirintoak



7 desberdintasunak





AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Maialen Barrietabeña** izan da. Ipuina eta ...eta kitto!ko kamiseta eraman ditu etxera Maialenek. Zorionak!!!



7 desberdintasunak



BIDALI ERANTZUNAK OTSAILAK 8 BAINO LEHEN
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena


AdinaTel.....

Denborapasak

Jeroglifikoak



Nor joan da mendira?



Zer jaten du ardiak?



Zer falta zaio oheari?

Lamiaa, Anwan, Fatima, Unai

Letra-zopa

Zopa letra honetan
8 animalien izenak
aurkitu behar dira. Animo!!!

- Zaldia
- Untxia
- Ardia
- Hartza
- Igela
- Arraina
- Txerria
- Balea

Q	U	Z	O	A	E	H	T	S	G	F	
Z	A	R	R	A	I	W	A	I	H	G	J
S	P	Q	E	W	X	U	N	T	X	I	A
A	R	D	I	A	D	C	B	U	B	K	
Q	A	A	N	G	A	D	V	C	A	F	P
R	T	F	T	E	L	Q	U	L	W	H	R
B	X	B	T	L	R	S	E	P	L	Q	M
C	E	S	A	A	Y	A	W	K	X	H	S
Z	R	S	S	Z	U	V	H	E	A	P	L
E	R	K	G	T	O	S	C	A	D	B	O
Y	I	Q	R	H	A	K	T	Q	G	F	Q
S	A	I	O	K	X	Z	B	P	R	N	N
O	H	I	Q	C	A	Y	E	W	V	E	T
Z	A	L	O	I	A	Z	Z	X	P	U	N

Naia



URKIZUko eskolan martxan jarrita daukagu goiko patioan eraiki diguten baratze berria: barazkiak landatzeaz gain, frutarbolak ere baditugu.

Horrez gain, 4. mailakoak igeriketa-ikastaroan hasi dira Gabonak pasa ondoren.

Gabonetako oporren aurretik, **ALDATZE** ikastetxeok, Gabonetako jaialdia ospatu genuen San Andres elizan. Bertan Aldatzeko 3 urteko gela eta LH 4. maila bitarteko ikasleok gabon-kantak eta olerkiak abestu eta antzestu genituen elizara gerturatu ziren senideen aurrean.



ITURBURU

“Gaur be euskaraz!!!” Gabonak atzean utzita 2018. urteari heldu diogu. Urteko ikastolako lehen egunean, mailaz maila ikastolako txoko ezberdinetatik pasa ginen ekintza ezberdinak eginez: ipuin kateatuak, musika-ekitaldiak, bideo zein jolasak, altxorren bila... Ikasleak pozik eta gogotsu ibili dira lagunartean eta “Gaur be euskaraz!!!” gogoan.



Urte berri on denoi!

Urte berriari indarrarekin ekin diogu **LA SALLE ISAS**in. Urtarrilaren 20an Izartxoko ludotekan Danborrada ospatu genuen eta zientzia-arratsaldea pasa genuen Lehen Hezkuntzakoekin. Primeran ibili ginen! Hilaren bukaeran Kontsumobideko tailerrak egingo ditugu eta ziur gaude gauza pila bat ikasiko ditugula.

AMAÑA

ikastetxe 6. mailako ikasleak Artea ikasbide programan parte hartzen ari dira. Ekimen hau 2017-2018 ikasturtean egingo dugu eta Guggenheim museoarekin kolaboratuz egiten da. Gurekin lanean ari den artista, Manu Muniategiandikoetxea da, astelehenero etortzen da guregana umeekin lan egitera. Gure gaia obra egiteko komunikazioa izango da, batez ere euskarari lotuta baina beste edozein hizkuntza ere erabil dezakegu, baita komunikatzeko modu ezberdinak ere. Umeak, programaren bukaeran komunikatzeko dauden modu ezberdinak ezagutzeaz gain komunikazio zuzen baten garrantzia ezagutzea nahi dugu, eta ikasleek, artea, beste begi batzuekin ikustea ere bai, eta ondo pasatzea.



Urte Berri on denoi, **ARRATEKO ANDRA MARI** ikastetxetik! Hemen gara berriro lanerako gogotsu, eta hainbat ekintza ditugu prest:


Urtarrilaren 18an, 6. mailako ikasleek, Odol Emaileen tailerra izan zuten. Urtarrilaren 26an LHko 5. eta 6. mailako ikasleak San Andres eskolara joango dira antzerki bat ikustera. Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra LHko 2., 4. eta 6. mailako ikasleak kontsumobideko tailerrak izango dituzte eskolan bertan. Urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra matrikulazio-garaia izango denez, gure eskolako atea zabalik egongo dira ikastetxea ezagutu nahi duten guztientzat.

Otsailaren 8an Aratosteak izango ditugu eta aurten, gaia, librea izango da. Hor arituko dira gurasoak ere lanean eskola apaintzen. Urtero bezala, euskal dantzak entsaiatzen ari gara otsailaren 8an kalejiran atera eta auzoa alaitzeko asmoz. Argazkian 5. eta 6. mailako ikasleak Madariagako dorretxean.

Bat, bi, hiru, lau... Go!azen

Julen, Haizea, Jontu, Ane, Markel, Eli, Gari, Erika, Zuzen, Bego... Berriz ere elkartu dira Basakabin eta hamaika abentura dibertigarri eskaintzen dizkigute barixaku iluntzetan. Aurten ere Eibar aldera etorri zaizkigu eta joan den urtarrilaren 13an bi saio eskaini zituzten Coliseo antzokian, bertan elkartu zirenen gozamenerako. Argazkietan ikus daitekeenez primeran pasatu zuten Coliseoan izan ziren ikusleek!



**IZENAK**

Nerea

ABIZENA

Gorriti

JAIOTERRIA

Eibar

JAIOTZE-DATA

1987ko uztailak 18

- Zergatik zara aktorea?

Beste pertsonaia batzuk interpretatzea gustatzen zaidalako eta beste pertsona batzuk biziko zutena bizitzea gustatuko litzaidakeelako.

- Aktorea izango ez bazina, zer izango zinateke?

Irakaslea.

- Aktuatzera edo abestea? Biak.**- Talde edo abeslari favoritoa?**
Elvis Presley.**- Abesti bat?**

'I wanna hold your hand', The Beatles.

- Nolakoa izango zen zure egun perfektua?

Bidai batean hiri bat ezagutzea.

- Zer duzu nahiago, haragia edo arraina? Arraina.**- Fruta bat?**

Marrubiak.

- Ametsetako oporrak non?

Thailandia edo horrelako toki batean.

- Eibar edo Madril?

Eibar.

- Zer gustatzen zaizu gehien Madriletik?

Bertako giroa eta bizitza, eta gauzak egiteko dagoen aukera.

- Eta gutxien?

Metroan pasatzen duzun denbora.

- Urtaro politena?

Udaberria.

- Birziklatzen duzu?

Bai.

-Animaliarik daukazu?

Ez.

- Umetako ikasgai gustokoena?

Ingelesa edo musika, abestu egiten genuelako.

- Eta gutxien?

Matematika.

- Itsasoa edo mendia?

Itsasoa.

- Gazia edo gozoa? Gozoa.**- Non nahiago duzu aktuatu: telebistan, zinean edo antzerkian?**

Aukeran antzerkian, baina edonon bestela.

- Eta abesteko, non?

Victoria Eugenia edo Arriaga Antzokian, adibidez.

- Pelikula gustokoena?


'Pulp Fiction', eta txikitik 'Mary Poppins'.

- Telebista-saio bat?

'Juego de tronos'.

NEREA GORRITI

Nerea Gorriti aktore eibartarra Erika irakaslearen azalean sartzen da 'Go!azen' telesailan. Eibarren izan dugu berriki Coliseoan ikuskizuna eskaintzen, eta momentu polita ari da bizitzen aktore moduan. Baina ez hori bakarrik. Abestea oso gustoko du eta Madrilgo 'Racoon' taldean bere alde rockeroa eskaintzen du, miresten duen Elvis Presley moduan.




LIBURUAK EUSTEKOA

Etxean liburu asko dituzue eta jada apaletan ez dakizuela nola antolatu? Hemen duzue ideia polit bat.



MATERIALA

- ✓ 20×14 zm-ko zabalerako eta 3 zm-ko lodierako bi egur zati.
- ✓ 14 x 10 zm-ko zabalerako eta 3 zm-ko lodierako bi egur zati.
- ✓ Silikona beroa.
- ✓ Pintura (espraia)
- ✓ Jostailuzko dinosaurusuak.



PAUSOAK

- 1.- Egurrezko zatiak naturalak badira, horrela erabili ditzakezue. Beste objektu batzuetatik birziklatuz gero, lixatu eta berniz edo pintura hondakinak kendu.
- 2.- Taulak batu 'L' itxura lortu arte. Zati luzeenean zulatzeko tokia markatu, zulatu eta pieza biak lotu.
- 3.- Dinosaurioa erditik moztu laban batekin, silikona beroa igurtzi moztutako zatian eta egurrean itsatsi.
- 4.- Dinosaurioa espreiarekin margotu. Bi geruza eman.
- 5.- Kitto! Badaukagu gure liburuak kokatzeko toki dibertigarri bat!

Ti-ta!

KOHETEA

Txokolatetik edo gozokiak ekartzen dituzten plastikozko bi hodi gorde, garbitu eta etiketa kendu. Pegatina eta horrelakoekin zuen gustura apaindu. Kartoi pixkatekin kono bat egin eta aluminiozko paperarekin edo metal koloreko pinturarekin margotu. Plastikozko hodien oinarriari itsatsi. Bi pilula antiazido jarri hodia ixten duen tapan, ur pixka bat bota... eta hegan egiten utzi!





GAILETAK MARMELADAREKIN

OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT)

- ✓ 400 gr. irin
- ✓ 200 gr. almendra-irin
- ✓ 300 gr. gurin
- ✓ 300 gr. azukre
- ✓ Banilla-koilarakada bat
- ✓ 4 arraultza gorringo
- ✓ Legami koilarakada bat
- ✓ Marmelada
- ✓ Azukre-hautsa



PAUSOAK

- 1.- Irinak bahetu eta gurinarekin, azukrearekin, arraultzekin eta legamiarekin nahastu. Gero, nahasketa irabiatu masa homogeneo eta leuna lortu arte. Film paperarekin estali eta 20 minututan hoztu hozkailuan.
- 2.- Masa zati bitan banatu, mahai gainean urun pixka bat bota eta arrabolarekin luzatu 3 mm-ko lodierako masa lortu arte. Berdina egin beste zatiarekin. Masa beste 30 minutuz hoztea komeni da, gailetak errazago moztu eta formak hobeto irteteko.
- 3.- Gailetak moztu. Gaileten erdiek ez dute zulorik edukiko erdian eta beste erdiek bai, batzuk oinarriak izango direlako eta besteak goiko aldeak.
- 4- Labean sartu 10 minutuz 200°C-tan. Hortik ateratzean hozten utzi eta azukre-hautsa bota.
- 5- Gaileten beheko alde marmeladarekin igurtzi. Ez bota marmelada asko, goiko zatia jartzean alboetatik irten daitekeelako.
- 6- Goiko zatia kontu handiz jarri eta gailetak jateko prest egongo dira!

FRESA, LARANJA ETA PLATANO IRABIATUA



Irabiatu hau hain da ona, azukrerik ere behar ez duela! Fruta hauen nahasketa oso leuna eta gozoa da. Frutak jatea oso garrantzitsua da eta jaten ikasi ahal da. Horretan hasteko, irabiatuak edatea modu ona da. Hemen aurkezten dizuegun irabiatua egiteko platano bat, 140 gr. marrubi, bi laranjen zukua eta jogurt greziar bat behar dira. Osagai guztiak ondo nahastu eta irabiatu behar dira, eta ez dago besterik egin behar. Gogoratu, gainera, laranja ez dela esnearekin nahastu behar irabiatuak egiteko orduan, moztu egiten delako. Horregatik, kasu honetan jogurta erabiliko dugu esnea beharrean.

La Salle Isasi ikastetxeko 6. mailako ikasleek istorio bat pentsatu, gidoia egin eta, gero, txotxongiloekin antzetzuko dute ikastetxeko ikasle gaztetxoenen aurrean. Istorio batzuk ezagunak egingo zaizkigu, baina moldatu egin dituzte istorio oso originalak sortuz.

Zertan datza txotxongiloekin egiten ari zareten proiektuak? Zein istorio kontatuko duzue?



**Eñaut
Leyaristi**
11 urte

Gure taldeak 'Txanogorritxuren' istorioa kontatuko du txotxongiloekin. Nik amamaren papera egingo dut. Oraindik ez gara txotxongiloak sortzen hasi, baina istorioa prestatzen ari gara eta amama onaren itxura izango du nireak: ile txuri eta kizkurduna, aurpegi zimurtua eta betaurrekoekin.



**Salaheddin
Chajrane**
11 urte

'Hiru txerri txoen' istorioa kontatuko du gure taldeak. Nik bi pertsonaia egingo ditut: otsoa eta txerrien aita izango naiz. Antzezlanaren lehen zatian txerriaren aitarena egingo dut eta, gero, otsoarena. Ez dute kointziditzen. Oso gustura nago egiten ari garenekin. Gainera, materiala birziklatuko dugu hainbat gauza sortzeko.



**Malen
Beobide**
11 urte

Gure taldean ez gara hasi oraindik txotxongiloak prestatzen, baina 'Hansel eta Gretelen' istorioa kontatzea pentsatzen dugu. Lau laguneko taldeetan arituko gara eta nik Hanselen papera egin nahi dut. Gainera, istorioari hainbat aldaketa egitea pentsatu dugu. Iaz galtzerdiekin antzeko ekintza bat egin genuen, baina gero ez genuen antzezpenik egin.



**Ane
Guenaga**
11 urte

Nik ere 'Hiru txerri txoen' istorioa kontatuko dut, eta narratzailea izateaz gain, lehen txerriaren papera ere egingo dut. Hasieran, erdialdean eta amaieran egiten du berba narratzaileak, eta lehen txerria lastozko etxea eraikitzen duena da. Guk ere istorioa moldatu dugu, eta errebelde bat istorioan sartuko da han eta hemen zaborra botatzen. Orduan, txerriak korrika joango dira zaborra batu eta birziklatzeko.



**Helene
Urreta**
11 urte

'Hansel eta Gretelen' istorioa kontatuko dugu eta protagonistetako bat izatea gustatuko litzaidake. Bestela, ama. Istorioa nondik nora joango den pentsatu dugu, eta erreginaren etxea gozokiekin egitea oso ondo legoke. Eta gero gozokiak jan! Aurretik ez naiz txotxongiloekin ibili, baina antzerkia, dantza eta abesten bai aritu naiz jendaurrean. Hasieran urduri jartzen zara, baina eszenatokira igotzean pasatu egiten da.




**Oier
Olañeta**
11 urte

Gure taldeak gabonetako istorio bat kontatuko du. Bertan, Bizar Zuri eta Olentzero borrokan arituko dira, pertsona maltzur batek opariak tokiz aldatuko dituelako eta eurak haserretu egingo direlako. Nik Olentzeroren papera egingo dut, eta Olentzero beti ezagutu dugun moduan irudikatuko dut nire txotxongiloa.



BELEA (6 URTETIK AURRERA)

Mundu guztia Belearen beldur da. Zer dela eta? Bele beltza beti dago bakarrik. Jolas egin besterik ez du nahi eta plan bat dauka lagunak egiteko, guztiak konbentzitzeko. Baina ideia ona izango al da azken batean? Ondo irtengo zaio? Belea istorio tristea eta barregarria da aldi berean, aurreiritzien kontrako bilduma ederra. Istorio gazi-gozoa, bizitza bera bezalakoa.



ANTTON ETA PIRAÑA (8 URTETIK AURRERA)

Oporrak aitona-amonekin kanpin batean igarotzea ez da Anttonen ametsa, egia esan, baina egun batzuk igerileku baten ondoan igarotzeko gogo handia du. Kanpinera iristean, baina, igerilekurik ez duela ikusiko du, eta gauzak gero eta okerrago jarriko dira umorez bustitako istorio honetan.



UME DESAGERTUAREN KASUA (10 URTETIK AURRERA)

Bertolek kamuflatzeko eta ezkutatzeko abiltasuna berezia du, eta bere urtebetetze egunean desagertu egin da; itxuraz, etxetik irten gabe. Inoiz baino hobeto gordeko zen, agian? Txantxa gogaikarri bat al da? Eskolako ikaskide harroputzek zerikusirik ote dute desagertuarekin? Arazoak ditu lagunekin? Familiarekin? Klarisa detektibea Bertolen etxera joango da Samedia katuarekin, eta bion artean ikerketa bat abiaraziko dute. Aurkikuntza arraro eta harrigarriari aurre egin beharko diete.

**“Maritxipi”
(ITURBURU)**

Iturburu ikastetxeko 6. mailako ikasleek Maritxipi kantu-jolasa erakutsi digute. Esku-hutsik, ezer gabe, primeran pasatzeko jolas dibertigarria!

Helburua: Haur guztien parte-hartzea bultzatzea eta musikaren erritmoa lantzea.

Nola jokatzen da? Jolaskideak biribilean jarri, barrura begira. Bat erdian jarriko da dantzan eta besteek, txaloka, abestia abestuko dute. Erdikoa korroko beste norbaiten aurrean jarriko da eta biribilean dagoenak erdikoak egiten dituen mugimenduak errepikatuko ditu. Parekoa besotik heldu eta biribil erdian dantza egingo dute, abestia hasieratik errepikatuz. Erdiko bikoteak gauza bera egingo du beste bi jolaskideren aurrean, eta horrela, biribil osoa dantzan jarri arte.

BIDEOA:

<http://etakitto.eus/txikitto/iturburu.html>

Jolastokixan jolasian



Abestia:

Kaletik nindoala
Mari Txipi ikusi nuen
eta erakutsi zidan
Txipi Txipi dantzaten.
DANTZA TXIPI TXIPI
DANTZA TXIPI TXOP
DANTZA TXIPI TXIPI
ETA DANTZATU ONDO.

- ✓ **Urtarrilak 27, zapatua, ZAPATUKO IPUINA:**
“Bi animalia larri, tontolapiko bat eta poesia...”

Oihana Etxegibelen eskutik. 18:00etan Umeen Liburutegian. 4 urtetik gorako umeentzat.



ASTELEHENA HAUR PARKEA

Urtarrilak 27, otsailak 3, 17, 24 eta martxoak 3, 10 eta 17.
11:00-14:00 / 16:30-20:30



Aratosteak 2018

Otsailak 3, zapatua

Koko-dantzak eta koko-eskea Kezkaren eskutik.

- ✓ 08:30: Merkatu Plazan lehen agerraldia.
- ✓ 09:00-16:00: Mandiola eta Agiñaga auzoetako baserrietan jardungo dute.
- ✓ 19:00-21:00: Koko-dantzak Eibarko erdiguneko kaleetan.

Otsailak 8, Eguen Zuri

- ✓ 15:00: Eskoletako taldeen kalejirak.
- ✓ 17:00: Urkizun hasita eta Untzagaraino Jainaga eta Narbaizarekin kalejira.
- ✓ 17:00: Untzagan, dantzaldia, Lisker taldearekin.
- ✓ 17:00-19:00: Tailerrak Untzagan: “Munduko tribuen” kareta eta makillajea Astixaren eskutik.

Otsailak 9, Aratoste Barixakua

- ✓ 20:00: Urkizun hasita Untzagaraino Kaldereroen kalejira.
- ✓ 20:30: Kaldereroen abestiak eta dantzak Untzaga Plazan.
- ✓ 21:00: Aratosteetako pregoia.
- ✓ 23:00: Eirband taldearen kontzertua Untzagan.

Otsailak 10, Aratoste Zapatua

- ✓ 12:00: Animazioa Untzagako karpan.
- ✓ 12:30-14:00: Rockalean emanaldia Untzagan.
- ✓ 12:30: Koadrillen kalejira. Untzagan hasi eta amaitu.
- ✓ 17:00: Mozorro-lehiaketa Galiziako Etxean.
- ✓ 18:30-20:30: Umeentzako berbena Alaiki taldearekin karpan.
- ✓ 18:00-20:00: Brass Band kalejira Untzagatik hasita.

Otsailak 11, Aratoste Domeka

- ✓ 17:00: Play Back lehiaketa LH 5-6. mailetako ikasleentzat. DJ Arnorekin. Karpan.

Otsailak 13, Aratoste Martitzena

- ✓ 17:00-18:30: Umeentzako jolasak Astixaren eskutik Untzagan.
- ✓ 18:30: Sardinaren entieru txikia Hortzmuga antzerki taldearekin.
- ✓ 19:00: Umeentzako diskoteka karpan Arima Cool Tour taldearekin.
- ✓ 19:00: Break in Eibar. 7-11 urte bitarteko haurren break dance dantza-erakusketa.





TXOKOLATEZKO GOZOKIA


Bazen behin, 2017an, Miren izeneko neska bat Eibarren bizi zena. Egunero hamabietan ogiaren bila joaten zen eta okinak ogia erostean txokolatezko gozoki goxo-goxo bat ematen zion. Miren, poz-pozik, bere etxera bueltatzen zen saltoka eta korrika. Etxera ailegatzean ogia mahai gainean jartzen zuen eta ondoren, gozokia hartu eta bere amaren logelara joaten zen. Amak ikustean, txokolatezko gozokia hartzen zuen, erdia Mirenek jaten zuen eta beste erdia amari ematen zion.

Baina, egun batean, Miren okindegitik bere etxera bueltatu zen poz-pozik txokolatezko gozokia jateko gogoarekin. Bat-batean, bere gozokia txakur batek hartu zuen eta Miren haserre aurpegiarekin korrika joan zen txakurraren atzetik. Ordubete igarota ama larritu egin zen Miren etxera bueltatu ez zelako. Poliziari deitzea bururatu zitzaion. Amak mugikorra hartu eta 091-ra deitu zuen; handik 15 minutura poliziak etxean zeuden. Andreak neskaren deskribapena eman zien: 11 urteko neska, nahiko altua, argala eta beltzarana. Ile marroia, leuna eta motza. Begi urdinak, itsasoa bezalakoak. Sudur motza eta nahiko txikia eta normalean barre asko egiten du. Gaur kirol-jertse urdin argi bat darama soinean “happy” jartzen duena, praka gris batzuk eta purpurina duten zapatilak daramatza oinetan. Amak Miren okindegira joan zela eta etxera ez zela bueltatu esan zien. Poliziak Miren Eibartik aurkitzen ahalegindu ziren: hiriko erdialdean, parkeetan, tabernetan... Baina ez zuten aztarnarik aurkitu. Bitartean, Miren, korrika



zebilen txakurraren atzetik. Bat-batean txakurra lurrera jausi zen. Miren txakurrarengana joan zen bere txokolatezko gozokia berreskuratzeko eta etxera joateko. Baina txakurra, Miren ikustean, urduri-urduri jarri zen eta konortea galdu zuen! Mirenek besoetan hartu eta korrika albaiariarengana eraman zuen. Hara ailegatzean harreragileari gertatutakoa kontatu zion. Harreragilea ahoa bete hortz gelditu zen istorioa entzuterakoan. Mirenek bere amari deitzea eskatu zion eta hark horrela egin zuen. Amak telefonoa hartu zuen eta oso pozik jarri zen bere umea bizirik zegoela ziurtatzean. Gero, ama, albaiariarengana joan zen eta Mireni besarkada haundi bat eman zion. Zorionez, txakurra, sendatu egin zen, baina, orain, Miren okindegira joaten den bakoitzean eta txokolatea hartzen duenean, txakur bati ematen dio, badaezpada konortea ez galtzeko.

Eskatu aitari edo
amari ipuin hau gaur
gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



zu margolari